



**PRESKIPZIO TEKNIKOAK:**  
**HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ZENTROETAN, 2018/2019 ETA 2019/2020**  
**IKASTURTETAN, "HAURRESKOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA" EKINTZA**  
**FORMATIBOA GARATZEKO, PRESTAKUNTZARAKO AHOLKULARITZA ETA**  
**ASISTENTZIA ARAUPETZEKO BALDINTZA ETA PRESKIPZIO TEKNIKOAK**  
**PROZEDURA LEHIAKETA PUBLIKOA (003/18 ESP.)**

**1. XEDEA.**

Haurreskolak Partzuergoko zentroetan, 2018/2019 eta 2018/2020 ikasturtetan "Haurreskolako Hezkuntza Proiektua" ekintza formatiboa garatzeko, prestakuntzarako aholkularitza eta asistentziarako baldintza eta preskripzio teknikoak arautzea.

**2. KONTRATUAREN XEDERAKO EKINTZA FORMATIBOA**

HAURRESKOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN garapena.

- Haurreskola kopurua: 139
- Prezio handiena: 140.812,00 €

**3. EKINTZA FORMATIBOAK BURUTZEKO TOKIAK**

Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile guztien parte hartzea errazteko asmoz, ekintza formatiboak EAEko hiru lurraldetan bete beharko dira. Ekintza formatiboak zein haurreskoletan eta udalerrietan egingo diren Haurreskolak Partzuergoak ezarriko ahalko ditu.

**4. IRAUPENA**

Prestakuntza ekintza hau 18 hilabetetan zehar garatuko da. 2019ko urtarrilean hasiko da eta 2020ko ekainean bukatutzat emango da.

**5.- GAUZATZEKO BALDINTZAK.**

- Prestakuntzako plan honen asistentzia euskaraz egin beharko da.
- Proiektu osoan zehar, berdintasuna genero ikuspegitik zehar lerro bezala garatu beharko da. Aurkeztutako lan proiektu teknikoan lan hau zelan gauzatuko den azalduko da.
- Horretarako baldintzak edo aukerak dauden heinean, erabilitako materialek berdintasuna genero ikuspegitik bermatuko dute.
- Era berean, baldintzak edo aukerak daudenean, materialak (idatzizko testuak, bideoak,...) euskaraz izango dira.
- Esleipendun enpresak edo entitateak ekintza antolatzerakoan Haurreskolak Partzuergoak ezarritako ildoak jarraitu beharko ditu: talde kopurua, talde bakoitzeko pertsona kopurua, aurrez aurreko prestakuntza ekintzak...
- Esleipendun enpresa edo entitateak, ekintza formatiboa modu egoki batean garatzeko baliabide egokiak ezartzeaz arduratuko da, kontratuak irauten duen artean sortutako gastuak bere gain hartuaz.
- Haurreskolak Partzuergoak ezarriko du, formazio prozesuan zehar, ekintza bakoitzean parte hartuko duen parte hartzaileen kopurua eta taldeak. Kopuru hauek aldakorrak izan daitezke kurtsoan zehar, beti ere haurreskola bakoitzeko hezitzaile kopuruaren arabera.
- Esleipendun enpresak edo entitateak, ekintza formatiboan parte hartzen duten pertsona guztiei, edozein momentutan hasten badira ere, ikastaroan beharrezkoa duten material didaktiko guztia eskainiko die.
- Hezitzaile bakoitzak, ikasturtero, 40 formazio-ordu dauzka proiektuan erabiltzeko. Ordu batzuk aurrez aurreko ekintzetan (jardunaldi-mintegietan) emango ditu, beste

batzuk haurreskolan bertan formazio bilerak egiteko eta azken multzo bat proiektuarekin lotutako lan pertsonalerako.

- Aukeratua izaten den enpresak edo entitateak, parte hartzaile guztiei ekintza formatiboa modu presentzian edo on-line moduan eskaintzeko konpromezua hartzen du. Honetaz gain, haurreskola bakoitzak egindako lanaren jarraipena egingo du.
- Ekintza formatiboak, kontzeptu teorikoen ikaskuntzan eta ekintza praktikoetan sakondu beharko du, beti ere hezitzaileek lan egiten duten lan taldea zein den kontutan hartuz, hau da, 0-2 urte arteko haurrak, Haurreskolak Partzuergoko marko teorikoaren barruan eta bere hezkuntza printzipioak errespetatuz.
- Esleipendun enpresak edo entitateak, ezarritako epeetan kontratatutako kontsulta eta asistentzia lanak hasteko konpromezua hartzen du.
- Esleipendun enpresak edo entitateak Haurreskolak Partzuergoari ekintza formatiboaren garapenean erabiliko duen material didaktikoaren kopia bat entregatu beharko du, euskarri digitalean.
- Esleipendun enpresa edo entitateak, noizean behin, Haurreskola Partzuergoko Formazioaren arduradun direnekin bildu beharko da. Bilera hauek, Haurreskola Partzuergoko egoitzan burutuko dira.
- Esleipendun enpresa edo entitateak prozesu osoan zehar, toki eta data desberdinetan, gutxienez, 56 jardunaldi/hitzaldi egiteko konpromezua hartzen du hezitzaile guztien parte hartzea bermatzeko. Saio hauek 2,5 ordukoak izango dira.

## 6.- AGINDUAK

Hautatutako enpresak hartzen dituen konpromezuak Haurreskola Partzuergoarekin, hautaketaren ondoren eta ekintza formatiboari dagokionez:

### A) Ekintza formatibo bakoitzaren aurretik:

- a. Kontratu honen ebazpenaren ondoren eta ekintza formatiboa hasi baino lehen, Haurreskola Partzuergoak hautatutako erakunde bakoitzari, ekintza horretan parte hartu behar duen haurreskolen zerrenda bat helaraziko dio. Pertsonen kopurua, kurtsuan zehar handitu ahal izango da, haurreskola parte hartzaileetan jende gehiago lanean hastearen ondorioz (haurreskola bakoitzeko hezitzaile guztiek ekintza horretan parte hartu beharko dute).
- b. Formazio prozesuan parte hartuko duten hezitzaileei emango zaien dokumentazioaren eta materialaren prestaketa. Bai, hasieratik hasiko diren hezitzaileei eta bai ondoren gehituko zaizkienei, ekintzaren garapenean zehar.
- c. Parte hartzaileei emango zaien material didaktikoa Haurreskolak Partzuergoari entregatzea.

### B) Ekintza formatiboaren garapenean zehar:

- a. Etengabeko koordinazioa haurreskola guztiekin, etengabeko asistentzia eta formazioaren bidez, bai presentzial moduan eta bai on-line moduan.
- b. Hezitzaileen parte hartzearen jarraipen etengabea egiten dituzten ekintza eta lan desberdinetan.
- c. Haurreskola bakoitzean egindako lanaren zuzendaritza eta jarraipen etengabea.
- d. Talde lanean oinarritutako jardunaldi-hitzaldien antolaketa, gaietan adituak diren pertsonen eta hezitzaile guztien parte hartzearekin.
- e. Formazio behar zehatzei dagokionez, entitate esleipendunak hezitzaileen eskariez arduratuko dira beharrezko informazioa emanaz eta formazioaosatzen duten material egokiak eskainiz.



- f. Aurrez aurreko jardunaldi-hitzaldietan parte hartzen dutenen sinadura orriak kudeatuko dira Haurreskolak Partzuergoko Formazio zerbitzuari helaraziz.
- g. Hemen azaltzen ez den eta formazio prozesuaren garapen egokirako beharrezkotzat jotzen den guztia.

C) Ekintza formatiboa amaitzean:

- a. Enpresek edo entitateek Haurreskola Partzuergoari helaraziko diote:
  - Ekintza formatiboaren etengabeko edo kurtso amaierako ebaluazioak.
  - Burututako ekintza formatiboaren amaieran, enpresa edo entitateak, burututako ekintzari buruzko MEMORIA deskribatzaile bat aurkeztuko du Haurreskola Partzuergoko egoitza sozian.
  - Esleipendun enpresek edo entitateek, edozein kasutan hilabeteko epea izango dute kontratua amaitu ondoren, formazio prozesuari amaiera ematen dion edozein dokumentu, prozesuan erabilitako materialak, zentroetan egindako lanak, parte hartzaileen zerrendak, aktak eta memoria entregatzeko. Baldintza hau betetzea beharrezkoa da aurkeztutako abala berreskuratzeko.

D) Likidazio ekonomikoa:

Enpresa edo pertsona esleipendunak, 2019ko otsailaren aurretik, hilabetero Haurreskolak Partzuergoari faktura bat igorriko dio bere zerbitzuengaitik.

## 7.- AURKEZTU BEHARREKO FORMAZIO PLANA

Prozedura publiko honetara aurkezten diren enpresek edo entitateek, beraien eskaintzan formazio plan bat garatu beharko dute ondorengo ezaugarriekin:

- 1) Formazio planaren deskribapena. Formazio planaren deskribapen orokorra, heziketa-markoaren barruan soilik (helburuak, edukiak, hezitzailearen rola marko instituzionalaren barruan,...)
- 2) Proiektuaren garapen egokirako erabilitako metodologia.
- 3) Ekintzaren garapen egokirako materialak eta baliabideak (bibliografia, artikulak, web orriak...).
- 4) Haurreskolak Partzuergoko 14 hezkuntza printzipioekin duen lotura.
- 5) Antolaketa: aurrez aurreko ekintzak, jardunaldi-hitzaldi kopurua, bilerak haurreskolan, on-line bidezko orduen proposamena.
- 6) Ekintzak burutzeko egutegia..
- 7) Helburu, edukien, metodologiaren, .... trataera eta prozesu osoaren garapena genero ikuspegitik.

Zehaztutako atal bakoitza 0 eta 5 puntu bitartean baloratuko da eta gehienez 35eko puntuazio maximoa lortu ahal izango du. Beraz, atal bakoitzean puntuazioa lortu ahal izateko beharrezkoa izango da aurkeztutako proposamen guztiek atal bakoitza errespetatzea.

## 8.- GAINBEGIRATZE ETA KONTROL AHALMENAK

Haurreskola Partzuergoak, egiten diren lanen gainbegiratze eta kontrol ahalmenak erreserbatuko ditu, horretarako esleipendun enpresek beharrezko lankidetzak eskainiaz. Baldintza hauen onarpena beharrezkoa izango da, dagozkion ordainketak jaso ahal izateko.



## 9.- KONFIDENTZIALTASUNA

Haurreskolak Partzuergoaren informazioa kontratu honen exekuziorako desberdinak diren helburuekin erabiltzea guztiz debekatuta dago, hauek kopiatu edo errepikatuko ez dituela hitzemango du enpresa esleituak eta kontratua xede diren lanak direla eta eskuratu izan dezakeen datuak sekretuan gordeko ditu.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako datuak informatizatuak izan edo izango badira, hauetarako sarbidea, indarrean dagoen legediaren arabera, kontrolatuta mantentzera behartzen da enpresa esleituak.

## 10.- DATUEN BABESA

Izaera pertsonala duten datuen babeserako araudiaren arabera, Haurreskolak Partzuergoa da tratamendu jardueren erantzulea. Erakunde kontratugileak, tratamenduaren erantzulea denez, bakar-bakarrik kontratuaren xederako erabiliko ditu datu pertsonalak.

Erakunde kontratugileak ez die inoiz hirugarren pertsonari edo alderdiez besteko erakundeei daturik komunikatuko, erakutsiko, utziko edo ezagutaraziko, ezta horiek zaintzeko ere. Era berean, ez da ahalbidetzen hirugarrenen azpikontrataziorik izaera pertsonala izan eta Haurreskolak partzuergoak eskatutako tratamenduak egiteko, ez bada aurrez horretarako baimena lortu izan eta, betiere, tratamenduaren azpikontrataziorako harreman juridikoak honako harreman juridikoaren baldintza berberetan agintzen badira.

Erakunde kontratugileak sekretua gorde beharko du, baita zerbitzua ematearen esparruan eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna ere.

Erakunde kontratugileak datu pertsonalak mantendu eta zaintzeko baimena jaso badu, harreman juridikoa bukatzean, datuok suntsitu egin beharko ditu, baita datuon euskarri edo dokumentu oro ere, datuen edo materialaren kopiarik gorde gabe.

Tratamendua egingo duen erakundeak ezarriko ditu Haurreskolak Partzuergoak bere eskura jarritako datu pertsonalak era egokian kudeatu, artxibatu eta aurkitzeko beharrezko diren irizpideak eta prozedurak, pertsona interesatu eta legitimatuek euren eskubideak erabiltzea eskatuko balute ere. Dena den, tratamendua egiteko ardura duen erakundeak ez ditu zuzenean erantzungo Haurreskolak Partzuergoaren titularitatekoak eta erantzukizunekoak diren datu pertsonalen inguruko eskubideak baliatzeko eskaerak.

Erakunde kontratugilearen ardura izango da mota fisiko, logiko eta antolaketa mailako segurtasun neurriak ezartzea, datuen babeserako egungo araudia betez, zerbitzua ematean eskuratutako izaera pertsonaleko datuak babesteko.

Edonola ere, tratamendu sistema eta zerbitzuen isilpekotasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorra bermatu beharko dira, datu pertsonalak era azkarrean eskuratu eta erabiltzeko moduan egongo direla ahalbidetuz, gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuta ere. Era berean, tratamenduaren segurtasuna bermatzeko abiarazitako neurri tekniko eta antolamenduzkoen eraginkortasuna erregulartasunez egiaztatzea, ebaluatzea eta baloratzea ere ahalbidetu beharko da. Tratamenduaren arduradunak eskubidea dauka kontratua indarrean dagoen denboran



Preskripzio teknikoak

beharrezko ikusten dituen segurtasun jarraibideak eta neurriak abian jarri eta inplementatzeko.

Haurreskolak Partzuergoak erakunde hornitzaileen kontratazioaren kudeaketako eta pertsonaleko esparruko datuak tratatzen ditu, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen araberrako kontratazioa era zuzenean garatu eta exekutatzeko dela kontrolatzeko. Datu pertsonalak gai horretan eskumena duten organo judizialei eta epaitegiei nahiz Administrazio Publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu. Interesa duten pertsonak datuok eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakete honako bideak baliatuz: Partzuergoko zuzendaritzari edo [dbo-dpd@haurreskolak.eus](mailto:dbo-dpd@haurreskolak.eus) posta elektronikora idazkia bideratuta. Bestalde, datuen babeserako Politikari buruzko informazio gehiago izateko [www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus) helbidera jo daiteke.